



EKOGRAFIATZ GIDATUTAKO BULARREKO BIOPSIA, ORRATZ LODIZ

Aurretik egin dizkizugun azterketetan bularreko lesio bat duzula baieztatu dugu. Lagin txiki bat hartu behar dugu zer-nolako lesioa den ezagutzeko. Era horretan, dagokizun tratamendu egokiena gomendatu ahal izango dizugu, halakorik behar baduzu.

NOLA EGITEN DA?

Prozedura anbulatorioa da. Ez duzu baraurik egon behar, eta prestaketa zehatzik ere ez duzu behar.

30 minutuko iraupena du gutxi gorabehera.

Ahoz gora edo alboka etzanda egongo zara ekografia egin dizuten ohatila berean.

Bularreko lesioa kokatuta, larruazala antiseptiko batez garbituko dugu. Anestesiko lokala jarriko dizugu. Ondoren, ebaki txiki bat egingo dugu larruazalean, eta horretan zehar kalibre handiagoko orratza sartuko dugu laginak hartzeko. Orratza behin baino gehiagotan sartu behar izaten da, lesioaren azterketa anatopatologikorako behar adina lagin daudela bermatzearren.

Prozedura ez da mingarria. Nolanahi ere, baliteke segundo batzuetan erresumina nabaritzea anestesia sartzen denean.

ARRISKUAK:

Arraroa da konplikazioak sortzea, baina zenbaitetan, baliteke honelakoak gertatzea:

- Konplikazio arinak, molestiak edo bularreko mina anestesia lokalaren eragina desagertzen denean. Ohikoenak izaten dira.
- Noiz edo noiz, baliteke odola izatea eta bularrean hematoma bat sortzea. Sortutako hematoma gehienak txikiak dira eta berez desagertuko dira.
- Nekez gertatu ohi da ziztada izan den aldearen infekziorik.
- Bularreko protesirik baduzu, hura nahi gabe hausteko arrisku txikia dago.

GOMENDIOAK LEHEN 24 ORDUETAN:

- Ez egin ahalegin fisikorik besoekin, eta ez jaso pisurik.
- Ez egin ariketa kementsurik (korrika egitea, igeri egitea...).
- Biopsia egin ondoren minik baduzu, parasetamola har dezakezu. Ez duzu hartu behar koagulazioa nahasten duen medikamenturik (aspirina®, azido azetilsalizilikoa).

KONTUAN IZAN BEHARREKO EGOERA BEREZIAK:

Azterketa egingo dizun profesionalari honako hau jakinarazi:

- Medikamenturen batekiko alergia duzun.
- Odola likidotzeko medikaziorik hartzen duzun (aspirina®, heparina, Sintrom®, Plavix®) edo odolaren koagulazioan eragiten duen gaixotasunik duzun.
- Haurdun edo edoskitzaroan zauden.